

**Hondakinen kudeaketa
propioa, gero eta
gertuago**

**Herritzartu Usurbil
elkarteak bideratuko
du maiatzaren 7ko
herri galdeketa**

**GuraSOS taldea,
adostasun eske**

noaua



Herriko artistak, saltokiak eta sustatzaileak bat eginik

Opari onena, herritarren uztakoa

ATXEGA JAUREGIA



**ASTEAN ZEHAR GAUETAN IREKITZEN DUGU!
(ASTELEHENAK EZIK)**

· Eguneko menua: Kafetegian 13,30€ (BEZ barne)
Jangelan: 17,50€ (BEZ barne) astelehenetik ostiralera
eguerdian eta GAUEAN !!!

· Eguneko platera

· Asteburuko menua 31€ (BEZ barne), Karta

Ospakizunak, ezkontzak...leku aproposa eta aukera zabala



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

**2017ko
irteerak**

BIDAIA TALDEAN

Irteera Lasarte-Oriatik
Noaoo Bidaiaiek lagunduta

**AEB-KO
MENDEBALDEKO
kosta**



MAIATZA

**BALTIKOKO
hiriburuetatik
kruzeroa**



UZTAILA

POLONIA



ABUZTUA

Informazioa eta erreserbak bulegoan.



NOAOO BIDAIAK

Hipocritas Etxeak, 16 - 20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613 | info@nooobidaiak.com
www.nooobidaiak.com

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

**AZKEN 2
ETXEBIZITZAK!**



**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste irudituan

Amador Granadosentzat, "Gipuzkoarren Kirolak Saria"

Foru Aldundiak abenduaren 15ean Irungo Ficoban ospaturiko Gipuzkoako Kirol Ekitaldian, 2016. urtean zehar eremu honetan nabarmendu diren herritarrek saritu zituen. Gipuzkoarren Kirolak Saria usurbildar bati eman zioten; Amador Granados Alkortari. Usurbildarrak Rioko Paralinpiar Jokoetan parte hartu eta brontzezko domina irabazi zuen pistako txirrindularitzako taldearekin. Zorionak!



Amador Granadosok Denis Itxasoren eskutik jaso zuen saria.

Laburrean

Aginagako Eiza denda ixtera doaz

100 urtetik gorako historia duen establezimendua ixtear diren honetan, jabeek eskerrak eman nahi dizkiete urte guztiotan bezero izan dituzten guztiei. Oporretatik bueltan, Eizakoei eginiko elkarrizketa plazaratuko dugu orriotan.

Psikomotrizitate ikastaroa Aginagan

Psikomotrizitate ikastaroa Aginagan. As-tean behin, HHko 2-5 urte bitarteko haurrentzat. Gabonen ondoren hasiko dira. Urtarriletik Aste Santu bitarte.

Informazio gehiago jasotzeko deitu ondoko telefono zenbakira: 636 531 650.

Inauteri Festako gaia: Ingurumena

Ideiak emateko proposamena zabaldu eta dagoeneko erabaki da Inauteri Festako gaia. Ingurumena izango dugu, datorren edizioan mozorrotzeko aitzakia. Hasi prestatzen beraz! Usurbilen otsailaren 25ean ospatuko dugu Inauteri Festa.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Espetxeak hustutzeko plaza bete maitasun

Aspaldi honetan herriko frontoi inguruan ibili bazarete, konturatu zineten dema plazan badagoela ezohikoa den zer-bait, hain zuzen ere, karpataxuri handi bat. Bertan jende andana dabilela eta guztiak ez direla usurbildarrak ere ohartuko zineten. Inaugurazioa, aizkolarien saioa, trikitilarien emanaldiak, hitzaldiak, bertso-poteoak... hamaika ekitaldi antolatuta dituzte egunotan. Horrez gain, ehunka edota milaka kilometrotara gatibu dauzkaten lagunei postalak idazteko aukera dago eta denda bat ere ireki dute. Honezkerok jakinaren gainean egongo zarete, baina despistaturen bati gauzak azaltze aldera, aipatutakoa Usurbilgo Kaleragunearen hasiera baino ez da.

Hilaren 10ean jarri zuten martxan KALERA KALERA ekimena. Euskal preso politiko ohiek bultzatutako giza-mobilizazio eta sentsibilizazio dinamika da. Lurrikara honen epizentroa Usurbilen badago ere, Euskal Herriko txoko guztiak astintzen ari da. Urtarrilaren 8ra bitarte iraungo du eta bitartean zer-bait preso ohi biltzen ari dira gure herriko plazan. Dagoe-

neko eragile askoren bisitak jaso dituzte eta ziur nago, datozen asteetan, gehiago jasoko dituztela.

Hala ere, bada azpimarratu nahi dudana zer-bait: abenduaren 29 eta 30ean emakume preso ohien txanda izango da. Garrantzitsua iruditzen zait eta, bestalde, aurrerapauso galanta. Izan ere, gure iruditeria kolektiboa erabat maskulinoa da. Bestela esanda, ez da kasualitatea preso ohi gehienak gizonezkoak izatea. Labur-labur azaltzen saiatuko naiz: gudari hitza entzuten dugun bakoitzean gizonezko bat imajinatzen dugu, borrokalaria eta horren adibide garbia da, esaterako, "kalera, kalera" letra duen abesti ezaguna. Ez da hor amaitzen ordea. Kanta berarekin jarraituz (nahiz eta gaur egun bertso modernoagoak dauden), emakumeoi zain egotea dagokigu eta, jendarte osoan bezala, hain baloratuak ez dauden lanak egitea, bizi-tzaren sostenguan eta zaintzan oinarritzen direnak bereziki. Orokorrean, amak, arrebak edota bikotekideak izaten dira arropaz ez-ezik, koardodun poltsak elkartasunez ere betetzen dituztenak, ondoren, penintsularen beste puntaraino eramateko; bisiten zerrendak

kudeatzen dituztenak etab. Finen, zaintzaile direnak. Askotan ahaztu egiten zaigu, baina ezinbestekoak dira ezkutuan egiten dituzten lan horiek.

Noan harira. Esan bezala, 2016ko azken egunetan emakume preso ohiak egongo dira Kaleragunearan. Patriarkatuak eurentzat prest zuen papera (pasiboa, ahula, belurtia, lotsatia, etxekotua...) hautsi eta euren aletxo eman dutenak dira. Gizonezko kideek adina borrokatu arren, tamalez, aitorten bera izan ez dutenak. Bigarren mailakoak. Nire ustez, beharrezkoa da emakume hauen agerpena, honela historian zehar (baita historiako zein filosofiako testu liburuetan ere) pairatutako ikusezintasunari aurre egin eta erreferentzialtasuna sortzeko; baita merezi duten lekua onartzeko ere. Gainera, preso politikoaren etxeratzea aldarrikatzeko helburuarekin egun horietarako egitarau oparoa antolatuta dute: batetik, agerraldi politiko musikatua egongo da, bestetik, emakumea eta espetxearen inguruko mahainguru interesgarriak eta asanbladak ere izango dute euren txokoa.

Honi guztiari ekimen hauetan parte hartzeko frantziar kartzeletan preso dauden emaku-

mee abestutako bertsoa gehitu behar zaio. Honela dio: *Fresneseko espetxetik zugana gatoz laguna, Kalera kalera! dugu gaurko gure oihartzuna. Banderolak haizeratu, mamitu elkartasuna, espetxeak hustutzeko plaza bete maitasuna. Guk barrutik zu ekarri barruko eginizuna, norbanakoen su txikiz argitu daigun iluna. Konpromiso (e)ta borrokaz ehundu etorkizuna, eskuz esku lortu arte guztion askatasuna!*

Zer oraindik etxean geratuko al zara? KALERA, KALERA! Bakea ta askatasuna irabaztera!

P.D.: Nolanahi ere, gabonak gainean ditugula ezin ahaztu eta ez nuke bukatu nahi eskutitzak idazteko gonbita luzatu gabe. Herritik urrun dauden eta herrikide ditugun Patxi, Olatz eta bidean den Xuari idatz diezaiekegu; baita Mari Domingiri (edo Olentzerori) ere. Nik, aurtengoan, urteetako espetxe politika krudelarekin amaitu eta asteburu honetako bidaia azkena izan dadila eskatuko diot Mari Domingiri. Eta zuk?

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | **Garazi Lizaso Manterola**

Hurrengo NOAUA!, urtarrilaren 13an

Aldizkari hau, gabonetako gehigarria eta Zaldia Arnaiz herriarrak diseinatutako 2017ko egutegia dira aurtengoz eskuartean

izango dituzuen NOAUA!ren azken argitalpenak. Bi asteke etenaldiaren ostean, hurrengo zenbakia urtarrilaren 13an argitaratuko dugu. Ordurako

zorion agur edo oharririk baldin baduzue, urtarrilaren 9ra arteko epea duzue NOAUA!ko egoitzara ekarri edo erredakzioa@noaua.eus helbidera

bidaltzeko. Aldizkaririk izan ez arren, asteotan web gune eta sare sozialak elikatzen segituko dugu. Eguberri eta urte berri on guztioi!

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 13. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 9.

Berritze lanak, Erroizpe urtegiari

Hainbat lan egin ditu Usurbilgo Udalak, Urdaigako urtegiari.

“Erroizpeko urtegiaren uretan, beheko eskuin alde oso hondatuta zegoen eta aintzinako presaren horma arteko tramoak berritu du Usurbilgo Udalak. Urtegiari iristeko bidetako ezker aldean, berriz, egonkortze lanak egiteko behar zegoela ikusi da ezpona garbitu ostean.

Era berean, ibai ertzeko ur-hornidurako tutuaren arketa berria egin eta hoditeria aldatu da”, Udaletik berri eman duteenez. Girder Ingeniaritzak landu eta zuzendu du proiektua.



Lanak, BEZa barne, 58.895 euroko kostua izan dute.

Construcciones Mariezcurrena izan da kontratista. Lanek, BEZa barne, 58.895 euroko kostua izan dute.

Langabezia beherantz, aldi baterako kontratuei esker

Udazken honetako joerari segida emanez, azaroan ere beherantz egin du langabezia-tasak Usurbilen. Estatuako Enplegu Zerbitzuak kaleratu dituen azken datuen arabera, 267tik 258ra murriztu zen langabetu kopurua joan den hilabetearen udalerrir honetan. Oraingoan, lanik gabeko emakumezko kopuruan eman den beherakadari esker.

Usurbilen bezala, Buruntzalde osoan eta Gipuzkoan ere murriztu da langabetu kopurua; bailaran, 86 langabetu gutxiago zenbatu dituzte. Gipuzkoan, 992 langabetu gutxiago.

Kontratuak, aldi baterakoak
Txanponaren beste alde dugu kontratazioena. Langabeziak beherantz egin duen artean, erregistraturiko kon-

tratu kopurua 302tik 379ra igo da. Halere, kontratu ia denak, 365, aldi baterako hitzartu dira. Gehienak zerbitzuen sektorean; 250. Oraindik orain, nabaria da, kontratatzen diren gizonen eta emakumezko kopuruen artean dagoen aldea. Azaroan erregistraturiko lan kontratuetatik 205 gizonen eta 174 emakumezkoenak.

Lan uzte gehiago Euskotrenen

Urriaren 25az geroztik lan uzte partzialak egiten ari dira Amara eta Arasoko Euskotrenen lan-egoitzeko langileak. Lan uzte gehiago iragarri dituzte.

Zerbitzu publikoak guztiok erabiltzeko aukera izatea eskatzen ari dira, zerbitzuen maiz-

tasuna eta kontratu finkoa duten langileen kopurua handitzea. Gutxieneko zerbitzuok finkatu dituzte egunotarako:

Gutxieneko zerbitzuak:
Abenduak 23:
6:25-8:35 / 17:25-19:35.

Abenduak 29:
7:25-9:35 / 18:25-20:35.

Informazio gehiago:
Euskotren: euskotren.eus
@euskotrenEJGV (Twitter)
Euskotren Amarako Langileak (Facebook)
@EuskotrenAmara (Twitter)

Larunbat honetan, Herriko Artixten bilera

Herriko artixten taldeak deialdi berri bat egin du. Abenduaren 24an larunbata, 10:30ean batuko dira Potxoenean. “Bertan, bakoitzak dituen kezak, asmoak, herriaren kulturak zein espazio betetzen dituen, zer nolako erronkak ditugun... eztabaidatzeko aukera izango da. Badakigu dena ez dela egun batean argituko, baina lehen pauso bat bezala ulertzen dugu lehenengo eztabaida hau. Interesatuta dagoen edonor azaldu daiteke, bilera irekia da”.

Hurrengo odol ematea urtarrilaren 16an

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak bi hilean behin lehen astelehenetan deitu ohi du odola emateko hitzordua. Datorren saioa, urtarrilaren 2an egokituko litzateke berez. Baina eguberriak tarteko, urtarrilaren 16ra atzeratuko da odol ematea. Urtarrilaren 16an beraz odola emateko aukera, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

2017rako ordenantza fiskalak

Finkatua zuten epearen baitan erreklamaziorik egon ezenez, behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak 2017rako ordenantza fiskalak. Urte berrirako udal aurrekontuak ere astearte honetako ezohiko osoko bilkuran onartzekoa zen Udala.

Sorturen batzarra

Urtarrilaren 21eko Kongresuaren aurretik, birfundazio prozesuko azken batzarra egingo du Usurbilgo Sortuk, urtarrilaren 7an 10:00etan Potxoenean; emendakinen eztabaida eta zerrenda irekien hautaketa.

Zubieta etorkizuneko energia iturri, zubietarrentzat

Energia berriztagarrien, eta energia autohornikuntzaren eremuan hainbat bizilagunek urratsak emanak dituzte Zubietan. Bide honetan sakontzera doaz orain. Zubietako Herri Batzarra, Lanbide Eskolarekin elkarlanean, eta Donostia zein Usurbilgo Udalen oniritziarekin, Zubietan bertan sortutako energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko zer aukera dauden aztertzea doaz, eta horren baitan urrats praktikoak eman asmo dituzte.

Horretarako, gutxi barru hasita, hiru fase ezberdinetan banatutako energia plan bat garatu nahi dute. Lehenik eta behin, Zubietan bertan zenbat energia sortu daitekeen jakiteko, zubietarrek zenbat kontsumitzen duten jakin behar. Hau guztia argitzeko, kontsumo energetikoaren gaineko diagnostia landuko du Lanbide Eskolak, 2017. urte hasieratik Zubietako Kaxkoan; ur kontsumoa, elektrikoa edota termikoa zenbatekoa den aztertu nahi dute, “nola murriztu edo hobetu dezakegun”, bai herri erdiguneko etxebizitza partikularretan, bai ikastetxeetan, baita jarduera ekonomikoren bat burutzen duten eraikinetan ere.

Doako aholkularitza, atez ate
Gune guztietara bisitak egin asmo dituzte proiektu honen sustatzaileek. Laginketa bat prestatu dute eta jada “badakigu zenbat eraikin bisitatu behar



Urte berriarekin batera, energia plan bat garatu nahi du Lanbide Eskolak.

LANBIDE ESKOLA

“2017 hasi eta berehala, kontsumo energetikoaren gaineko diagnostia landuko du Lanbide Eskolak”

ditugun. Herritarrak animatzea falta zaigu”. Baimena ematen duten herritarren bizileku edota lantokiak bisitatuko dituzte eta energiaren eremuan, zer egoeretan dauden ikusi. Herritarrek bide batez, gai honen inguruko doako aholkularitza jasotzeko aukera izango dute; kontsumo fakturak nola interpretatu, zer hobetu edo energia nola aurreztu dezaketen ikasi... Bisitok proiektu honen sustatzaileentzat baita herritarrentzat ere, “aberasgarriak izan daitezkeelakoan gaude”.

Lanketa tekniko hau, herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio, formakuntza eta parte hartze prozesu batekin uztar-

tuko dute. “Ikusten genuen interesgarria izan zitekeela, herriari landutako plan bat aurkeztu beharrean, herria hasieratik plan horren lanketako partaide izatea”, adierazi digute.

Erakundeak eta herritarrak elkarlanean aritzeko aukera izango dute beraz hasieratik. Lehen diagnosi hau prest denean Zubietako herriari aurkeztuko zaio. Eta segidan bigarren faseari ekingo diote; energia sorkuntzaren inguruko lanketa bideratuko dute. Bertan, Zubietak energia herrian bertan sortzeko zer gaitasun duen aztertuko dute. Sustatzaileek energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi dute, baina argi diotenez, gai honetan guztian herritarrek izango dute azken hitza. Fase hau ere herritarrekin ondu eta hortik aterako den diagnostia ere zubietarrei aurkeztuko zaie.

Bi diagnosis ostean, Zubietarako energia plana prestatzea izango da hurrengo urratsa.

“Oso kontzientziatua dagoen herria dugu”

Zubietak garatu asmo duen energia plan honetarako teknikari bat kontratatuko du Zubietako Herri Batzarrek. Berak egingo du, batetik egitasmoaren inplikatuak dauden erakundeen arteko bitartekaritza lana, eta herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio eta kontzientziatze ekimenak dinamizatuko ditu, aholkulari lanak egiteaz gain.

Proposamena Lanbide Eskolatik jaso zuten Herri Batzarrean. “Urte asko daramagu energiaren alorrean lan asko egiten. Zubietako herria oso egokia da bere orografia-gatik, etxeen tipologiagatik, energiaren inguruan lanketa handi bat egiteko, energia burujabetzaren bidean pausok emateko”, adierazi digute Lanbide Eskolatik.

Ez horregatik bakarrik. “Ekimen berritzailea da honako hau. Zein toki hobea Zubieta baino, energia lortzeko beste modu batzuk badaudela erakusteko. Herritarrak hainbat pauso emanak dituzte. Zubieta oso kontzientziatua dagoen herria dugu”, azpimarratzen dute Lanbide Eskolatik.

Energia plan hau garatzeko baliabide faltarik ez dute bertan; urteetako esperientzia eremu honetan, alorreko enprekin hartueman zuzena, eta gaiotan trebatzen ari diren ikasleak ere inplikatzeko aukera egongo da.

Gai honen gaineko argibide zehatzak emateko batzar orokorra deitzeko da Zubietako Herri Batzarra asteotan.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Herritzartu Usurbilek bideratuko du maiatzaren 7ko herri galdeketa

Maiatzaren 7an egingo den galdeketa-rako bidea jorratzen hasiak gara baita Usurbilen. Abenduaren 16an aurkeztu zuten jendaurrean, galdeketa kudeatuko duen elkarte, manifestua eta talde sustatzailea. Herritzartu izena du elkarte berriak, ondoko irudian duzue talde sustatzailea eta segidan manifestua.

Taldeak poztasuna agertu nahi izan zuen "Usurbilen ere erabakitzea goazelako". Hila-beteotako bidea herritarrekin batera jorratu nahi dute. "Galdeketa aurrera eramateko lan talde zabala osatu nahi dugu. Gonbidatuak zaudete!", adierazi zieten frontoira joandako herritarrei.

Sinadura bilketa abian

Manifestuak herritarren ahalik eta babesik handiena izateko,



"Galdeketa aurrera eramateko lan talde zabala osatu nahi dugu. Gonbidatuak zaudete!", adierazi zieten aurreko ostiralean frontoira joandako herritarrei.

sinadura bilketa ekin diote. Zuen atxikimendua emateko aukera izango duzue, abenduaren 23, 24, 30 eta 31n, iluntzeko 19:00etatik aurrera

frontoi inguruan jarriko duten mahaian. Argibide gehiago jaso edo taldean lagundu nahi duenak:
■ Ostegunero biltzen dira,

18:30ean Potxoenean.

■ Facebook: Gure Esku Dago Usurbil

■ Twitter: @GureEskuDagoU

■ usurbilgureeskudago@gmail.com

Erabakitze eskubidearen aldeko usurbildarron adierazpena

Kronika zelta batek dio boterea ahalmen bat dela, pentsamendua bezain sinplea eta ziurtasuna bezain indartsua. Boteretik ez bilatu, dio kronikak, bera etorriko da geuregana, nor garen, nondik gatozen, non gauden eta gure pausoak norantz doazen jakiten dugunean. Zapaltzen dugun Lurra, arnasten dugun Airea, edaten dugun Ura eta berotzen gaituen Sua elkarrekin ari dira leku berezi bat eraikitzen: Bizitza.

Aspaldiko hitzak dira. Baina oraindik pizturik daude, hogei-tabatgarren mende hasieran ere.

Asko baikara berriro arnasa hartzen ikasi nahi dugunak, taupadei adi, begiz begiko dis-

tantzian. Asko gara elkarren arrimura eraiki nahi dugunak eguna, izandakoei leku eginez, datozenak magalean hartuz, unea diseinatuz, nondik, nola, zertarako, norantz. Asko gara, dagoeneko, hizkuntza txikien doinuan –ere– nabigatu nahi dugunak munduko uretan, nik hau horrela esaten dut eta zuk nola? Asko gara, gero eta gehiago, eguzkiaren beroa partekatu nahi dugunak, bizitza ospatuz, jabeakuntza ikur hartuta.

Erabakien aroan gaude. Herritarrok hitza berreskuratu nahi dugu, egokitu zaigunaz jabetzeko, bizi dugunaz hausnartzeko, datorrenaz eztabaidatzeko. Ez dugu nahi inork eman dezan pausoa gure iza-

nean. Ez dugu nahi inork erabaki dezan nola bizi nahi dugun dagokigun aroa.

Ideologia eta sinesmen desberdinetakoak batu gara Usurbilen. Euskal Herriarentzako proiektu ezberdinak ditugu zerumugan eta geure burua izendatzeko orduan ere ez da ñabarduririk falta, baina eskubide berberak estekatzen gaitu, herri modura nahiz nazio gisa: geuk erabaki nahi dugu Euskal Herriaren geroa.

Ez gara bakarrak. Eskozian eta Katalunian pausoak ematen ari dira, dagoeneko, antzeko norabidean.

Erabakiaren aroa iritsi delako. Herritar bakoitza libre jaio delako. Herritar bakoitzak

eskubidea daukalako hitzez eta ahotsez bizi den Euskal Herria eraikitzeko.

Hala bada, idatzi hau sinatzen dugunok oinarritzko eskubide demokratiko horren alde egiten dugu, ozenki aditza emanez: Bat, Euskal Herria bere etorkizuna erabakitzeko duen herria dela. Bi, euskal herritarroi dagokigula erabaki hori hartzea.

Halaber, gure sinaduraren bidez, babesa eta bultzada ematen diogu Usurbilen, maiatzaren 7an, eskubide horren alde egingo den herri-kontsultari.

Herriak hitza hartzeko garaia iritsi da: herritzartu.

Herritzartu Usurbil

Mugarri berria, hondakinen kudeaketa eredu propioaren lanketan



Usurbilgo Udala lanketa betean da, hondakinak tratatzeko eredu propioa izan dezan.

2009az geroztik hondakinen bilketa eredu propioa martxan du Usurbilek; gaikako bilketa %28 ingurutik %80tik gorako mailara arte igoarazi duen atez atekoa. Orain urrats berri bat eman nahi du Udalak; erraustegia alboratu eta udal baliabideekin hondakinak herrian bertan tratatzeko dauden aukerak aztertu nahi ditu. Hau da, Usurbilek hondakinak tratatzeko eredu propioa izateko lanketa betean da Udala.

Usurbil 0.0 egitasmoa

Uztaila amaieran eginiko osoko ohiko bilkuran erabaki zuen bide hau jorratzen hastea; erraustegia alboratu eta "Usurbil 0.0" izeneko egitasmo berri hau bideratzeari ekitea hain zuzen.

Ordutik, azterketa batzorde bat eratu du, Usurbilen sortu eta bildutako hondakinak, udal baliabideekin herrian bertan tratatzeko dauden aukeren gai-

USURBIL 0.0
Uztaila amaieran eginiko osoko ohiko bilkuran erabaki zuen Udalak bide hau jorratzen hastea; erraustegia alboratu eta "Usurbil 0.0" izeneko egitasmo berriari ekitea, hain zuzen

neko lanketa egiteko. Behin behineko dokumentu bat prestatu du Udalak eta dokumentu hau xe mahai gainean jartzera doa, ostegun honetarako, abenduaren 22rako antolatutako jardunaldi egunean. Iritziak trukatu eta ekarpenak biltzeko, hainbat teknikari eta aditu ezagun gonbidatu dituzte Potxoenean ospatuko den saiora.

Hiru hilabeteko prozesua

Udalak hain zuzen, ez baitu bide hau bakarrik jorratu nahi; bidelagun izan nahi ditu, herri-

tar, eragile eta adituak. Ostegunean, aditu, herritar eta eragileon aurrean aurkeztuko duten dokumentua, iritzi eta proposamenekin hornitu nahi dute. Hilaren 22ko saioa, lanketa horren guztiaren abiapuntua izango da. Prozesua hiru hilabetez luzatuko da.

Tarte honetan bildutako ekarpen eta proposamenekin, behin betiko dokumentua osatu eta hau ere jendaurrean aurkeztuko du Udalak. Aurkezpenarako ez dute edozein egun hautatu; martxoaren 16a. Atez ateko bilketa abiatu zeneko 8. urtemuga eguna hain zuzen.

Udaletik NOAUA!ri adierazi diotenez, egitasmo hau eredu izateko jaiotako eta Europatik datozen zuzentzauek agintzen dutenarekin alderatuta, haratago doa. Argi adierazten du, erraustegiko lanen lizitazioa ate joka izan arren, "hemen ez da dena amaitzen". Bada oraindik erraustegia alboratu eta jorratzeko dagoen bide alternatiboa.

Abenduaren 22an, adituen bisita

Iritziak trukatu eta ekarpenak biltzeko, hainbat teknikari eta aditu ezagun gonbidatu dituzte Potxoenean ospatuko den saiora. Herritarren zein eragileen ekarpenak ere ondo gogoan hartuko dira. Hiru hilabeteko prozesua izango da eta abiapuntua aste honetan izango du, abenduaren 22an.

Abenduak 22, osteguna

■ 09:00-12:00 Adituen iritzi trukaketa Potxoenean. Gonbidatuen artean:

-Joan Marc Simon, Zerowaste Europe-ko zuzendaria.

-Ramon Plana, Hondakinen tratamendu biologikoetan aditua.

-Ignasi Puig, Ent environment aholkularitzako proiektuen koordinatzailea.

-Gorka Bueno, EHU-ko Ingenieritza eskolako irakaslea.

-Arloko teknikariak.

■ 12:30 Solasaldia hedabideekin.

■ 19:00 Herritar eta eragileei zuzenduriko jendaurreko aurkezpen ekitaldia Potxoenean.

Martxoak 16, osteguna

■ Behin betiko planaren aurkezpena.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Joan Marc Simon, Zerowaste Europako zuzendaria.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldedia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu [www.noaua.eus-etik!](http://www.noaua.eus-etik)

tren eta autobus

noaua

ordutegia 16/17

noaua euskararen aterpe



Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!



Adostasun eske, Foru Aldundi atarian



Aurreko larunbatean GurasosSek merienda-bilkura egin zuen Donostiako Gipuzkoa Plazan.

Merienda-bilkura jendetsua antolatu zuen GuraSOSek larunbatean Donostiako Gipuzkoa plazan, sarritan eskatu arren, oraindik ere guraso taldearekin bildu ez den Foru Aldundiko egoitzaren atarian. Uztailearen 6an eta abenduaren 2an egin zioten Diputazioari hain zuzen, biltzeko eta hondakinen kudeaketaren gaiari loturiko prozesu parte hartzaile bat irekitzeko eskaera. Baina erantzunik ez dute jaso oraindik.

Horregatik hautatu zuten Gipuzkoa plaza, abenduaren 17ko ekitaldirako. “Foru Aldundiak herritarrak hartu behar gaituztela gogora arazteko da, hau da, hemen gaudela ikusi behar dute, eta gurekin bildu behar direla gure eskaerak kontuan hartzeko”, adierazi zuten merienda-bilkuran. Hondakinen arazoak irtenbidea duela gogorarazten dute. “Hondakinen arazoak konponbidea badu: adosta-

GURASOS

Osasun eta ingurumenarentzat kalte gutxien ekarri eta adostasun gehien lortuko duen bidea jorratzea eskatzen dute. “Ekin diezaiogun beraz elkarrizketari, informazioari, eztabaidari akordio zabal bat lortzeko”

suna. Asturiasen eta Nafarroak frogatu dute posible dela”, diote guraso taldeak. Osasun eta ingurumenarentzat kalte gutxien ekarri eta adostasun gehien lortuko duen bidea jorratzea eskatzen dute. “Ekin diezaiogun beraz elkarrizketari, informazioari, eztabaidari akordio zabal bat lortzeko”.

“Etorkizuna erraustegien debeku mailakatua da Europan” Bide batez, Europak erraustegiaren aldeko apustua egiten ari denik ukatzen dute. “Hori aurreko mendeko bidea izan

zen. Etorkizuna erraustegien debeku mailakatua da Europan (2015eko Parlamentuko ebazpena)”, zioten.

“Elkarrizketaren bidea irekitzea lortu dugu”

Hondakinen afera konponitzeko bide-orri bat landua eta jendaurrean aurkeztua du GuraSOSek. Dagoeneko EAJ, EHBildu, Podemos, CCOO eta STEILASekin bildu edo biltzekotan da taldea, “eta asmoa du, PSE, PP, ELA eta LABekin ere biltzeko. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin ere hitzordua lotzen ari da”.

Bide-orriaren aldeko atxikimendu bila

Bide orri honen aldeko atxikimenduak biltzen ari dira herriz herri. Dagoeneko hainbat elkarte eta ikastetxeek bat egin dute bide-orriarekin. Itxaropentsu agertu dira. “Oraindik goiz da, baina esan dezakegu elkarrizketaren bidea irekitzea lortu dugula, eta ez da gutxi”, diote GuraSOSetik.

Lizitazioa etenda, auzitegiek ebatzi arte

Merienda-bilkuran zehar, abian dituzten ekimen juridikoen berri eman zuen GuraSOSek. Aurreko astean bertan, erraustegiko lanen lizitazioa urgentziaz edo kautelaz etetea eskatu zuen GuraSOSek Donostiako 3 zenbakiko epaitegian. Honez gain, errekurtsioa aurkeztu du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan.

“Kautelazko neurri hauek eskatze soilak errekurtsioaren objektu den lizitazioaren esleipena debekatzea dakar berekin, harik eta hura ebatzen den arte”. Are gehiago, ohartarazi dutenez, bi zirkunstantzia hauetako bat gertatuz gero soilik esleitu daitezke erraustegia eraiki eta kudeatzeko lanak abenduaren 27an. “Data hori baino lehenago EAEko Auzitegiak edota Donostiako Epaitegiek epaia ematen badute. Edo bietako batek ere onartu ezean, eskatu dugun kautelazko etetea”.

Baikor ageri dira abian dituzten ekimen juridikoen aurrean. “Nahiz eta horrela nahiko genukeen, benetan zaila ematen du bi organo judizialek epaia data hori baino lehen eman dezaten, are gehiago gabonetako datak gainean ditugula jakinda. Bestetik, errekurtsogileek badute konfiantza auzitegiek onartuko dutela eskatutako etete neurria”.

Epaitegietara jo arren, argi utzi nahi izan zuen GuraSOSek, “elkarrizketa eta adostasunean sinesten dugu, Gipuzkoa elkarrekin gehiago izango denaren itxaropena dugulako. Hori dela eta, abenduaren 27a baino lehen edozein unetan elkarrizketarako bidea irekitzen bada, etenda utziko dugu bide judiziala, beti lehenetsiko dugulako adostasunaren bidea”.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak lizitaziorako proposamena prest

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak abenduaren 27rako finkatua du erraustegiko lanen lizitazioa onartzeko bilera. Kontratazio Mahaia dagoeneko erabaki du, deialdira aurkeztu ziren hiru enpresa taldeetako zeini eman, erraustegia eraiki eta kudeatzeko ardura. Puntuazio hau eman die, eskaintzaren bat aurkeztu duten enpresa taldeoi:

■ Meridiam Investments SAS.; Urbaser, S.A.; Altuna y Uria, S.A.; Construcciones Moyua, S.L.; Construcciones Murias, S.A.; LKS Ingeniería, S.COOP. 901,88 puntu

■ Fomento Construcciones y Contratas; Sartech Engineering. 896,68 puntu

■ Construcciones y Promocio-



Aurreko astean, GuraSOsek erraustegiko lanen lizitazioa urgentziaz edo kautelaz etetea eskatu zuen epaitegietan.

nes Balzola S.A.; Valoriza Servicios Medioambientales, S.A.; Valoriza Gestión, S.A. 631,61 puntu

Protesta ekintza, abenduaren 27an Donostian

Abenduaren 27rako mobilizatza deitu gaitu Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Hitzordua, hilaren 27an, eguerdiko 12:00etan Donostiako Gipuzkoa plazan finkatu dute, Foru Aldundi atarian. “Dei egiten diegu gipuzkoarrei, bai agintari, ordezkari politiko eta herritarrei, erraustegi kriminal hau eta lapurreta izugarritzko hau onartu ez dezaten”, adierazi zuten aste hasieran agerraldi bidez, protesta ekintza berri honetako deitzaileek.

Mobilizatzeko arrazoiak bat baino gehiago direla nabarmendu zuten. Batetik, “erraustegia oso kaltegarria dela osasunarentzat. Horretan medikuek lan asko egin dute eta saiatu dira gizarteratzen zer kalte dakarzkion erraustegi batek osasunari”. Gaineratu zuten, Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko erraustegia ez da beharrezkoa. “Bada urte mordoxka bat, Usurbilek abiatuta eta ondoren hainbat herri, bilketa txukun bat egiten hasi



Abenduaren 27an eguerdiko 12:00etan Donostiako Gipuzkoa plazan.

zirela, gaikako bilketa on bat. Pertsonako eta urteko une honetan, 50-60 kilo besterik ez gara sortzen ari, bilketa ondo egiten ari garen herrietan”, zehaztu zuten.

Milioika euroko zorra

Eta protestarako arrazoi hauei, erraustegiak gipuzkoarroi ekonomikoki suposatuko diguna erantsi behar zaie. Etxez etxe banatzen ari diren eskuorrien bidez jakitera eman dutenez, erraustegia 246.429,41 euro kostako zaigu usurbildarroi urteko. 35 urteetan, 8.625.029,37 euro ordaintzera behartuko gaituzte. Gipuzkoarroi oro har, hondakinak erraustea 1.500

milioi euroko gastua eragingo digu. “Badakigu honek ekonomikoki izugarritzko kostea suposatuko digula gipuzkoarroi. 35 urterako zorpetuko gaituela, eta lepotik helduta geratuko garela zor horrekin, eta ez da justua, ez da bidezkoa. Zor guztiz ilegítimo bat izango da. Zor hori ordaintzeko udalek lehentasunezko gastutzat, beste edozein gasturen aurretik ipini beharko dute diru kopuru hori. Hernanarrok adibidez, 800.000 euroko gastua izango dugu urtero, 50 kilo sortzen dugun herritarrek izanda. Badira herriak 300 kilo sortzen dutenak, ez dutelako bilketa txukun bat egiten”, azpimarratzen dute.

Bidegorri-sarea ia geldirik, Eguzkiren esanetan

Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo honetara bideratu beharreko diru kopurua nabarmen murriztu duelako, bidegorri-sarea, Usurbilgo bidegorria tartean, ia guztiz geldirik dagoela gogorarazi du Eguzki Talde Ekologistak, NOAUA!ra helarazi duen oharren bidez. 2016an 2,3 milioi euroko inbertsioa bideratu dela eta 2017an 1,8 milioi euro inbertitu nahi direla. Martxa honetan, “8 urte ez, 50etik gora beharko dira “oinarrizko” sarea osatzeko”, dio Eguzkik. Panorama honetan, foru ordezkariak bizikletaren erabilerearen alde esandako hitzak eta ekintzak ez datozela bat adierazi dute talde ekologistatik.

Mankomunitatean segi edo ateratzeaz, batzarra Sutegin

Begi bistakoa da erraustegiaren gaia herritarren artean sortzen ari den kezka nabaria. Horren adierazleetako bat, aste hasieran, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak deituta, Sutegiko auditorioko oholtza gainean egin zen batzarra. San Marko Mankomunitatean segi edo ateratzeaz jardun zuten saioan zehar, eta bai erakunde honen barruan jarraitzeak edo erakunde hau uzteak ekar ditzakeen ondorioez.



Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak antolatu zuen batzarra.

noaua



Euskararen leihoa
www.noaua.com

 @noaua

 noaua

 noauatv



[Klik! batean](#)

Fotokola

Jende asko hurbildu ohi da Euskararen Leihora. Azken urteotan, San Tomas eguneko bereizgarrietako batean bilakatu da *fotokola*. Argazki denak noaua.eus helbidean dituzue ikusgai. Bide batez, 119 eta 12 saritutako zenbakien jabeak, nahi duzuenean sari bila pasa. NOAUA!n dituzue zain!

Argazkia: Ion Markel

“Zortzi”, Labriten itzulerako diskoa

Oparoa izan den 2016ko usurbildar sortzaileen produktu uztara baturiko azken lan berrietakoa dugu Labritena; “Zortzi”. 2000. hamarkada hasieran plazaraturiko bi lanen ostekoa. Nagusiki amatasunari eskaini dizkion urte guztiotan ordea, ez du eten sorkuntza lana. Itzultzeko unea zela erabaki duen arte. 2017tik aurrera oholta gainean ikusiko dugu usurbildarra.

Eskenatokitik urrun egon zara urteotan. Baina ez duzu guztiz eten kantuarekiko lotura?

Labrit Zabala: Urte guztiotan gustukoaren dudana egin dut; konposatzea. Abesti piloa joan da bidean. Pirritx eta Porrotxekin elkarlanean, ipuin kontalari bezala kanta batzuk abesten eta haurrak hezten aritu naiz. Hori izan da neure altxorrik handiena. Haurrak hezteko denbora izatea oso zaila da garaiotan. Neure kasuan, bi gauzak ez ziren bateragarriak. Konposatzeko denbora asko behar dut eta disko batek eskatzen duen denborarik ez nuen, eta ez nuen izan nahi. Hilabete amaierara justurago iritsi arren, nahiago nuen haurrak hezte. Argi nuen,



2017tik aurrera zuzenekoak eskaintzen hasiko da berriro.

LABRIT ZABALA

“Urte guztiotan gustukoaren dudana egin dut; konposatzea. Abesti piloa joan da bidean”

musikarekin nuen lotura ez nuela galdu, konposatzen ari bainintzen. Eta haurren heziketan presente nengoen ehuneko ehunean. Guztia nuen.

Konposatzen joan zaren neurrian, landutakoa plazaratzeko gogoak edo bultzatu zaitu lan berri batekin oholta gainera itzultzera?

Itzuliko nintzela argi nuen, baina noiz ez nekien. Garbi neukan ere ahal izan banu edo ez, berdin izango zela, ez nintzen musika mundutik at geratuko, egunero konposatzeko gaitasuna hor izango nuen. Hori garbi izanda, egunean egunekoa bizitzen joan naiz, beharrik sentitu gabe. Egun bat heldu zen, haurrak hezi

samar zeuden eta esan nuen “orain da neure unea”. Haurrari begira nengoen une batean izan zen, “eta orain zergatik ez?” galdetu nion neure buruari. “Orain bai” esan nuen.

Ordurako lan berriko abestiak sortuak zenituen?

Aurreko abestiak konposaketak ziren. Askok ikertu dut baita erritmoekin, asko ikasten joan naiz urteotan. Oraingo abestiak, orain arte ikasitakoan zentratuko dira, zein izan diren irtenbideak eta partekatuko dudana norbaiti balio izatea espero dut. Azkenean musikak horretarako ere balio baitu, mezuak helarazi eta arima elikatzeke batez ere.

“Esentzian ez gara aldatzen”

Aurreko bi lanen eboluzioaren emaitza da honakoa?

Horixe esango nuke. Esentzian ez gara aldatzen, baina bai aldatzen gara aukeratzeko garaian. Kuxkuxeatzen, aztertzen, gauza asko uztartzen joan naiz. Hasieran egin nahi nituen gauza asko orain egin ditut eta hori izan da emaitza. Aztertzen joan naizen heinean joan da Labrit baita musika aldetik ezagutzen.

Barruari aurre egin, isiltasunari entzun

9 abesti berri. Zeri buruzkoak? Amatasuna ere islatzen da abestiotan?

Labrit Zabala: Batez ere nola aurre egiten diogun bizitzari. Askotan familia edo lagunek guri eragiten uzten diegu. Apartatu pixka bat zure bakardade, isiltasunera eta entzun zure barruari. Askotan gauza ikaragarriak entzungo ditugu, ez zaizkigunak batere gustatuko, baina lehenbailehen horri aurre egiten badio-

gu, askoz libreago izango gara aurrerago eta gure haurrak hezterakoan baita. Gure barruari aurre egin behar diogu, isiltasunari entzun. Isiltasun horretan gure barruak hitz egiten baitu, eta hor, altxor eta erantzun asko daude. Horrek indarra ematen dizu. Nahiz eta dena hankaz gora egon zure kanpoan, barruan bakea baduzu, guztiarekin ahal duzula eta zorientasuna ez dela galtzen.

Abesti guztiak horretan oinarrituak daude.

Noiz ikusiko zaitugu oholta gainean?

Kontzertuen agenda lotzen ari gara. Entseguetan ari naiz, badakigulako egun batetik bestera hasiko garela agendak betetzen. Data zehatzak ez ditut, ze neure laneko ordutegia eta musikakoa lotu behar ditut. Baina 2017tik aurrera izango da. Oholta

gaina, Julen Apezetxea (bateria) eta Xabi Barrenetxearekin (baxua) partekatuko dut.

Urduri zaude?

Gogo handia dut. Durangoko Azokan ere egon nintzen. Arazo teknikoak tarteko, ezin izan nuen emanaldia eskaini. Elkarriketatxo bat egin zidaten eta a cappella abesti bat kantatu nuen. Polita izan zen. Jende asko zegoen gainera, poza ematen du.

Usurbildarren uzta, gabonetarako opari



Joseba Tapia: “Larreko eskolatik”

Trikitixarekin gozatzeko apunteak kaleratu ditu Joseba Tapiak, “ikasle, irakasle eta guraoen lagungarri izatea nahi nuke”. “Zer ekar genezake gaurko egoera honetara, geure esperientziatik?” bere buruari egiten dion galdera hau eta beste batzuei erantzuna ematen dion lana eskuragarri duzue.

Yolanda Arrietaren zenbait lan

Lan bat baino gehiago kaleratu du 2016an. Batetik, Aitziber Alonso marrazkilariarekin landutako haur txikientzako lo-kanten inguruko “Kulun-kuttunak”. Bixenta Mogel euskal idazlearen inguruko “Argiaren alaba” lanaren erdarazko bertsioa, “La hija de las luces”.

Bestalde, Euskal Museoren “Estereoskopiak: 16 + 16” erakusketaren harira kaleraturiko argitalpenerako narrazio lan bat sortu du.

Jakoba Errekondo: “Altza Porru”

Jakoba Errekondoren “Bizi baratzea” liburutik eratorritako argitalpena, nagusiki irudi eta komikiez osatua. Errekondoren bi herritar ditugu inplikatutak egitasmo honetan; Idoya Torregarai eta Joseba Larratxe irudigile gisa. Baratzea mundu askotarako ataria dela azaldu nahi izan dute lan honekin.

Zumeta, katalogoa

Jose Luis Zumeta margolariaren zenbait katalogo donazio moduan utzi dizkio alaba Usoak, Sutegi udal liburutegiari. Tartean “Gaur konstelazioak 1966-2016”, artista usurbildarra kide izan zuen duela 50 urteko mugimenduari buruzko argitalpena.

Joseba Larratxe: “Eneko Aritza”

Eneko Aritza lehen errege baskoian eta bere familian eta Orreagako batailetan zentratutako komiki historikoa. Kontatu izan ez diguten geure historia

modu erraz eta ikusgarrian ezagutu eta ulertzeko aukera dugu lan berri honekin. “Joseviskik” Anjel Rekalde eta Nabarralderekin elkarlanean labetik atera berri duen argitalpena.

Kantu Taldearen liburuxka berria

300 abesti eta kanta hauen inguruko informazio interesgarri askoa biltzen ditu, Kantu Taldeak, NOAUA! K.E.rekin eta Usurbilgo Udalarekin elkarlanean argitaratu berri duen kantu-liburuxka eguneratuak. Kantuzaleentzako tresna ezin erabilgarriagoa.

Rukula

Zenbait emanaldi plazaratu dituzte; jaietan esaterako edota abendu hasieran, Durangoko Azokan. Eta musika biratik bueltatu berri da Rukula; pozik asko gainera. Argitaratu berri duten estreinako lana aurkezten dabil talde usurbildarra.

Floxbin: “Ak!”

2015. urte amaieran kaleratu zuten arren, aurreko udaberrian aurkeztu zuten Iñaki Udabek eta Joseba Agirresarobek Txokoaldeko Akerra Gaztetxean, “Ak!” lan berria. Gaztetako proiektu hura berpiztu duen lana dugu honakoa.

Izeberg: “Lurrik ez begibistan”

Lan berria udaberrian kaleratu zuten, Ixak Arrutik (ahotsa eta gitarra), Jokin Irastorzak (bateria), Antton Aranburuk (gitarra) eta Beñat Urteagak (baxua).

Herrian ekoitzi, herrian eskuratu

Urte garai honetan oparitarako aitzakia zerrenda ederra duzue ondokoa. 2016ko usurbildar sortzaileen uzta osoa, establezimendu ezberdinetan duzue eskuragarri; Sutegi udal liburutegian, NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Lizardi eta Laurok liburu dendatan; baita, Aitzaga, Irrati, Txirristra eta Zendoia tabernetan ere.



San Tomas azoka, iruditan

Giro ederrak lagunduta, jendetza batu zen aurreko igandeko San Tomas azokan. Eguerdirako frontoia lepo zegoen. Herriko ekoizleen sagardoak dastatzeko aukera izan zen, eta baita bertako babarrun ekoizleen uzta gertutik ezagutzeko parada ere.

Babarrun lehiaketan, Manuel Aizpurua Aginagako Ibai-Ertz etxekoa izan zen nagusi beste behin ere. Bigarren Olarri baserria izan zen, Kalezar auzokoa, eta hirugarren geratu Izarpe etxea (Kalezarrekoa hau ere).



Sagardo lehiaketan, Zubietako Zelaieta etxeak eraman zuen lehen saria. Bigarren saria Izeta anaiantzat izan zen. Hirugarrena, aldiz, Aginagako Gorostidi baserria.

Fotokoleko zenbaki sarituak

Bi otar zozketatu genituen San Tomas Azokan, NOAUA!ren Fotokolean argazkia atera zenutenon artean. Honatx zenbaki sarituak: Errigoraren otarra 119 zenbakiaren jabeari egokitu zaio. Zuberoako ikastolen aldeko bertako produktuekin hornituriko otarra berriz, 12 zenbakia zuenari. Zorionak! Sarituentzako bi otarrak NOAUA!ko egoitzan ditugu. Fotokoleko argazkiak sarean dituzue ikusgai; noaua.eus atariko Argazkitegia atalean.



Jende askok hartu zuen parte San Tomas azokan.

“Denboraren Makina eraiki dugu”

Kaixo lagunok!! LH1 eta LH2.mailako ikasleak gara!! Aurten, urtero bezala, LH1eko ikasleok Denboraren Makina eraiki dugu denboran zehar bidaiatzeko. Etxetik ekarritako materiala erabili dugu eraketarako: kartoizko kaxak, tapoiak, komuneko rolloak, arrautza kaxak, zilarrezko papera,... eta gure lanaren emaitza erakutsi nahi izan dizuegu. Gustatu al zaizue? Martxan jarriko dela uste al duzue? Gu ziur gaudela baietz eta lehen bidaian, Dinosaurioen Garaira joango gara!!



LH2kook ere iaz egin genuen Denboraren Makina, eta iaz bezalaxe, aurten ere,

denboran zehar bidaiatzen jarraitzen dugu. Oraintxe bertan, Erdi Aroan gabiltza. Honekin

lotuta, hizki zopa bat prestatu dugu. Ea gustuko duzuen!! Bertan, Erdi Aroko Euskal He-

rriko gazteluak azaltzen dira!!

Aioooooo!!!!

LH1 eta 2ko ikasleok

Letra-zopa

Aurki itzazu letra zopa honetan Euskal Herrian dauden antzinako zenbait dorretxe, gaztelu eta jauregiren izenak.

XABIER

MARTIARTU

MUNTSARAZ

OLASO

MENDOZA

ERRIBERRI

IGARTZA

DONAMARIA

ENPARAN

URRUTIA

P	U	R	R	U	T	I	A	H	O	L	E
E	M	E	X	E	I	R	I	J	P	I	A
X	E	Z	A	Z	O	R	G	O	D	P	I
A	X	A	B	A	X	A	A	I	U	O	R
E	R	R	I	B	E	R	R	I	T	I	A
O	T	A	E	O	T	O	T	L	R	D	M
A	M	I	R	R	A	L	Z	A	A	R	A
Z	G	R	A	P	A	K	A	R	I	E	N
O	N	A	R	A	P	N	E	E	T	K	O
D	E	E	R	Y	P	E	A	Z	R	L	D
N	U	O	L	A	S	O	K	A	A	E	A
E	O	A	A	K	N	O	A	K	M	K	E
M	U	N	T	S	A	R	A	Z	N	O	A

Presoekiko elkartasuna, inoiz baino biziago eguberriotan

Eguberriotan inoiz baino biziagoa izango da, euskal presoen eskubideekiko elkartasuna eta eskubideok betetzeko exijentziaren eskaera, urtarilaren 8ra arte Dema plazan kokaturiko karpa gunean egiten ari diren itxialdiarekin eta honen harira, egunero antolatu dituzten ekimenekin.



Ekitaldi ugari egin dira egunotan frontoian, Kaleraguneak antolatuta.

Kaleraguneko agenda osoa, gabonetako gehigarrian duzue. Hitzorduokin batera, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak ere urte garai honi begirako ekitaldiak deitu ditu:

■ Abenduak 24, larunbata: 17:30 Aitzaga paretik, euskal presoen eskubideen aldeko

kantu-jira.

■ Abenduak 31, larunbata: 20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko topa berezia.

■ Urtarrilak 14, larunbata: 17:30 Sare mugimenduak deituriko "Euskal presoak, Euskal Herrira!" manifestazioa, Bil-

boko Kasillatik abiatuta. Hara joateko autobus zerbitzua antolatuko da. Ohiko tokietan bideratuko da izen ematea.

■ Informazio gehiago: kalerakalera.eus
Facebook: Kalera kalera
Twitter: @kalera_kalera

Bi ahalduntze ikastaro berri emakumeentzat

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak, urte berrirako bi ikastarook antolatu ditu. Usurbildarrek izango dute lehenetasuna:

■ Mindfulness: Pepa Bojo psikologoarekin, urtarilaren 12tik apirilaren 6ra. Saioak ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean (gaztelaniaz). Izen emateko epea: urtarilaren 2tik 9ra. Lehenetasuna usurbildarrek izango dute.

■ Biodantza: urtarilaren 20tik apirilaren 7ra, ostiralean 17:00-18:30 artean, Oiar-do Kiroldegian. Izen emateko epea: urtarilaren 2tik 17ra.

■ Izen ematea, informazioa: Parekidetasun Sailean
943 377 110
parekidetasuna@usurbil.eus

Aita-emeak txapeldun, elkarte arteko mus lehian



Iñaki eta Eneko Izagirre aita semeak nagusitu dira, asteburuan ospatu den elkarte arteko mus txapelketan. Bi txapel-dunak garaikurra eskutan, pozik asko ageri dira helarazi dituzten ondoko argazkian. Zorionak!

Miriam Arrillaga, palako txapeldun



Larunbatean Tolosako Beotibarren ospatu zen Emakumea Pilotari jaialdian, Miriam Arrillaga zubietarra eta Rosa berrobotarra nagusitu ziren 2. mailako pala partidako finalean. 30-16 irabazi zieten Otaegi-Erasun bikotearen aurkako lehian. Zorionak!

LUMA PULIDA KRISTALDEGIA
ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Usurbil Futbol Taldearen topaketa

Urtea agurtzeko, gabonetako futbol topaketa antolatu du Usurbil F.T.-k abenduaren 31rako Haranen. Urnieta, Villabona, Orio, Pasaia, Sanse, Elizondo, Usurbil eta Allerru taldeak batuko ditu, goizeko 09:30ean aurkezpene ekitaldiarekin hasiko den ekimenean.

Bartzelonara, Real animatzera

Eguberrioi begira bakarrik ez, hurrengo oporraldirako ere prestaketa lanetan da Usurbil F.T. Bartzelonara bidaia antolatu dute apirilaren 16ko asteburuan. Realak Bartzelonaren aurka jokatu du bertan. Partida ikusteko aitzakiarekin,



Abenduaren 31ko topaketa Haranen egingo da eta Urnieta, Villabona, Orio, Pasaia, Sanse, Elizondo, eta Allerru taldeak izango dituzte aurkari.

Kataluniako hiriburuan egonaldia egiteko aukera izango da. Usurbil F.T.-tik aditzera eman dutenez, animatzen zareten guztiontzat izen emateko

urtarrilaren 31ra arteko epea finkatu dute. Argibide gehiago behar dituenak, idatzi dezala futusurbil@yahoo.es helbidera.

Gabonetako Eskubaloi Txapelketa, abenduaren 30ean

Miroz Ullateren omenez antolatu ohi den infantilen mailako Gabonetako Eskubaloi Txapelketa abenduaren 30ean ospatuko da, egun osoz, 09:00-20:00 artean Oiardo Kiroldegian.

Errifa zozketa

Iruditan duzue. Lara Montes herritarra izan da Usurbil K.E.-ren errifa zozketako azken saritua. Bruño etxeko mariskada ederra tokatu zaio, 6.995 zenbakidun errifaren jabea.



Lara Montese irabazi du Bruño etxeko mariskada.

Estitxu Berasategi, Bera Berara

17 urteko Usurbil Kirol Elkarteko jokalaria fitxatu du Bera Bera eskubaloi taldeak. Abuztuan aurrendenboraldia talde berean egin zuen. Bidebietan entrenatu eta Usurbilen jokatzeko aukera eman zuten. Orain taldea

indartzea erabaki dute usurbildarraren fitxaketarekin. Beste herritar baten talde kidea izango da hilabeteotan; Lur Errekondorena. Klubean lehiatzen ari da baita Esther Arrojeria.



Esther Arrojeria eta Lur Errekondo izango ditu taldekide Bera Beran.

Bidasoako kontrabandisten ibilbidea

Andatza M.K.T.-k prest du 2017ko mendi irteeren egutegia. Berrikuntzekin gainera. Urtarriletik uztaileira, "Bidasoako kontrabandistak" ibilaldia 7 etapetan egitea proposatzen dute. Hasiera, urtarrilaren 15erako antolatu duten lehen txangoarekin emango diote. Hendaia, Hondarribia eta Harritxulo lotuko ditu ibilaldi honek. Informazio gehiago, andatzamendizale.info atarian jaso dezakezue.

Pagazpe, txapelaldun

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan, Pagazpe garaile izan da pala motzeko 1. Mailako finalean.

"Ikasle Bikainak" izateagatik saritua

"Kutzak Gipuzkoako Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasle bikainak saritu ditu aurten lehen aldiz. Usurbilgo Lanbide Eskolako Goi Mailako Administrazio eta Finantzetako Iruñe Lasarte zein Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Mantenuko Mikel Lopetegi ikasleak saritu ditu. Biek diploma zein 500 eurotako saria jaso dute. Usurbilgo Lanbide Eskolak zorionak opa dizkie Iruñe zein Mikeli".



Mikel Lopetegi eta Iruñe Lasarte, Lanbide Eskolako ikasleak.

USURBIL AUTOAK
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

www.noaua.eus
 USURBILGO ATARIA

talak 36-60

INQUIETUD
 IANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

ETXEBIZITZA

Salgai

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzzen du enkantean. Gutxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kon-tratazioa@usurbil.eus

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emalez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAlk ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santunean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, auke-ra ezin hobea.lñaki (665736896)

Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kortexko karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitera salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Etzeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperekin egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hain-

bat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila nabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta espezientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etkez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material gutxiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Per-



Zorionak Ibai!

4 urte egingo dituzu urtarrilaren 8an. Muxu, muxu, muxu, muxu guapo!



Zorionak Anne eta Jon!!!

Abenduaren 26an, 6 urte beteko dituzue. Gure etxeko 2 txikiertzako zorionak. Ondo ondo pasa. Helene, aita eta ama.



Zorionak Arai!

Kostata baina iritsi da 7. urtebetzea ospatzeko eguna. Abenduaren 21ean ospatuko dugu txokolat bero berua hartuz. Muxu handi handi bat!!

OHARRA: 2017ko urtarrilaren 13an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 9an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emalez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Agenda abendua

23 ostirala

- "Xinpronia eta Olentzerorentzako eskutitzak". 19:00etan Aginagako ludotekan.
- Zubietako gabonetako kantu saioaren entsegua 18:00etan Kaxkapen.
- Kaleragunean: presoen alde kantuan. Abeslariaren emanaldia.

24 larunbata

- Herriko Artixten bilkura. 10:30ean Potxoenean.
- Gabon kantuak. Hitzordu guztien xehetasunak, Eguberrietako gehigarri bereziko agendan.

25 igandea

- "Ez dauden mahaia" Kaleragunean: 13:00ean.

Abenduaren 26tik 28ra, Gabonetako Haur Parkea Oiardo kiroldegian

Berrituta dator aurten Gabonetako Haur Parkea. Tailer ugari eta txiki nahiz gaztetxoentzako eskaintza zabalarekin.

- Tailerrak: txapa tailerra, kareta, lorontziak...
- Txikientzako gunean: puzgarriak, ludoteka, margolarien gunea...
- Handientzako gunean: ohe elastikoak, Rolling estream-eko bi simulagailu... Eta, gainera, egunero ikuskizunak.

Ikuskizunak

- Abenduak 26, astelehena, 17:30: Kiki pailazoa (Azkona taldea).

Komiki Tailerreko ikasleen erakusketa

Azken hilabeteotan Joseba Larratxe herritarrak bideratu duen komikigintza tailerreko ikasleen lanak ikusgai jarri ditu ekimen honen antolakuntzak, Hitz Aho Udaregi Ikastolako Guraso Elkarteak, Sutegi udal liburutegian. Eguberriotan zehar bisitatu ahalko duzue sortze lanon bilduma.



Goizez: 11:00-13:00. Arratsaldez: 16:30-19:30. 2-12 urte artekoentzat, sarrera doan.

- Abenduak 27, asteartea, 17:30: Apaxi ipuin kontalaria.
- Abenduak 28, asteazkena, 17:30: Dj Jon: Diskofesta.

Urtarrilaren 2an "Prop eta Berta" filma Sutegin

Hilabeteko lehen igandea jai egunarekin tokatu denez, haurrentzako hurrengo filmaren proiektzioa astelehenarekin egokituko da. Urtarrilaren 2an astelehena, 17:00etan Sutegin. Sarrera, egunean bertan eta filma hasi baino lehenxeago eskuratu ahal izango da Sutegiko takillan.

Datozenak

Kantu Taldearen ikastaro berria

Gabonen ondoren ikastaro berriari ekingo dio Usurbilgo Kantu Taldeak. Urtarrilaren 10ean itzuliko da aste-roko entsegu saioetara. Asteartero biltzen segiko dute, 18:30-19:30 artean Udaregi Ikastolako kantu gelan. Berrikuntzekin gainera; batetik, gogoan izan, kantu-liburuxka berria duela taldeak. 5 eurotan salgai dituzue NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. Eta taldeak gidari berria du. Susi Elosegiren lekukoa hartu du, Udaregi Ikastolako musika irakasle ere baden Jaione Eskudero.

Abenduaren 31n, Hurbilago San Silvestre lasterketa

Hurbilagoko saltokietan edo hurbilago.com atarian sartuta bidera daiteke inskripzioa, doan. Lasterketa, abenduaren 31n abiatuko da arratsaldeko 17:00etan frontoi ingurutik. Herri erdiguneari bi itzuli eman eta frontoian amaituko da. Eta gero, Hurbilagoko establezimenduen hainbat opari zozketatuko dira, lasterketarako izena eman eta ekimenean parte hartu dutenen artean.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

lñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@lñakiiturgintza.com - www.lñakiiturgintza.com

600 024 825

ESKAIOLA eta
PLADUR

Joxean Elorza

699426042

USURBIL



 **jostailu denda**
xirinbolo

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil



hurrengo **NOVA** urtarrilaren 13an

10. URTEURRENA!

Otar-Goxo

Elkagaiak

Gabonetako berezitasunak eta otarrak prezio ezin hobean

Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Idi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
Rosbeef, entrekota (1kg)...
Txerrikume errea
Arkume errea
Antxume errea

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa eta Mikuít
Ahate konfita
Ahate magreta
Pate ezberdinak
Olagarroa ozpinetan
Olagarro egosia
Antxoa ozpinetan
Izokina
Iberiko aukera zabala



Etxeko berezitasunak

Kroketa bereziak
Bakailu kokotsak
Krep ugariak
Arrain zopa
Txipiroiak bere tintan
Arrain budina
Piper beteak
Txekor-masailak saltsan
Gula entsalada epela
Ahate eta perretxiko
entsalada epela

Fruta dendakoak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Aukera bereziko frutak
Tartak
Gabon gozoak



Hirukide elkarteko kide
diren familientzat...

%5 EROSKETA GUZTIETAN!



merkalitatea



Hirukide



hurbilag